

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera eramateko hainbat baliabide beharko ditugu. Eta baliabide hauek mota ezberdinetan sailka ditzakegu:

Baliabide fisikoak:

Lokal bat beharko dugu gure proiektua aurrera eramateko eta Étagèrea garatzeko. Hau, gure lan lekua izango litzateke. Jakina, lokal horretarako, altzariak eta ofizinako materiala erabili beharko dugu.

Beraien artean, aulkiak, inprimagailuak, ordenagailuak, mahiak...

Baita ere, online denda eta internet bidez egin beharreko ekintzetan arduratzeko, router bat beharko genuke.



Baliabide intelektualak:

Web orri bat dugu gure produktua saltzeko eta bertan honi buruzko informazioa eskuratzeko. Bezeroak erraz erakartzeko ezagutza, jendea produktua erosteko konbenzitza, produktua erakargarria bilatzeko ezagutza. Étagère egiteko ezagutza profesionala eta trebetasuna behar dugu.

Étagère produktu berria denez eta ideia lapurtua ez izateko merkaturatzeko patenteak egin behar dira, produktua erregistrat egin beharko da.

Giza baliabideak:

Bi langile kontratatuko dugu gurekin batera lan egiteko. Langile horietako bat informatikaria izango da eta bestea arotza, guztira 6 pertsona izango gara. Hasteko guk, enpresako jabeok arotzarekin bat, zehazki proiektuaren nondik norakoak zehaztuko ditugu, hau da, étagèrea nola izango den finkatuko dugu, gero arotzaren esku utziz étagèrearen ekoizpena. Ondoren, informatikariaren laguntzaz web orria sortuko dugu.

Azkenik, guk produktuaren jabeok lan desberdinak izango ditugu. Batik bat, pertsona bat administraritzan eta kontuetan ibiliko da, beste bi xaflei imana jartzez



arduratuko da eta azkena, étagère bakoitza bere kaxan ipintzeaz arduratuko da. Kate baten modukoa izango da, hau da, behar beharrekoa da bakoitzaren lana. Denek eguneko lana egin beharko dugu, bat atzeratua joanez gero, besteak atzeratuak joango direlako eta orduan, produktua ez da egunerako egongo, hortaz gogor egin beharko dugu lan.

Finantza-baliabideak:

Étagère enpresa osatzen dugun kideok hasiera batean gure bizitzan zehar aurreztutako dirua jarriko dugu, hau da, 750€ bakoitzak guztira 3.000€ izango ditugu eskura.

Bestetik, diru gehiago lortzeko, mailegu bat eskatuko dugu banku batean.